

ZENBAIT PUNTUTXO LEIZARRAGAREN HIZKERAZ

Donostia, 1992.12.18

Patxi Altuna

Itsaso handiegia da Leizarragaren hizkera ni honen denbora eta txosten laburrean haren uretan murgildu ahal izateko. Testamentu Berriaren itzulpena Juana de Albret Erreginak eskaturik egin zuen, jakina denez, eta argitara ematean gutun bat ezarri zuen liburuaren hasieran itzulpena Erreginari eskainiz. Gutun hori eta liburuan horri darraizkion “Adbertimendua” eta “Somarioa” izeneko beste bi idaztiak hartuko ditut soilik aztergai. Joan diren azken hilabeteetan agertu behar izan diet berriro Beraskoitzeko idazlea ikasleei eta lehen ez bezala begitan jo nauten puntu batzuk azalduko ditut hemen.

1. Izan bedi guzietan lehena hasieran bertan *zeren* menderagailuak abiaraziriko kausazko perpausaren ondoan ezartzen duen —“merezki onez arintasunez akusa ahal neinde”— perpaus nagusi horretako adizki laguntzailea, *neinde* alegia. Zein da adizki horren jatorria?

Etxeparek *nainde* aldaera darabil hiru bider —“Ezin damna naindeie-la zinesten dut segurki”, II,121; “Duda gabe eror nainde han berian hilhotza”, V,20; “Iamas zurekila enainde enoia” (X,8)— eta Oihenartek *nainte* —“Zur’ oldez ehun / bat enaint’ ehun / urtez behin zurekila”. Esan gabe doa euskara batuan *ninteke* dioguna dela, gure *-ke* gabe hiru forma zaharretan.

Aztergai dudan adizkia laguntzaile iragangaitza denez gero, ez ditut hemen iragankorrek ahotan hartuko eta iragangaitzetara mugatuko naiz soilik.

Indikatiboaren ahalerako adizki zaharrak, *nizate*, *ninzate*, *ninzaten* —euskara batuan *naizateke*, *nintzateke*, *nintzatekeen* direnak— nondik eta nola sortu ziren gauza jakina da: *niz* eta *ninzan* izan zituzten sorburu. Hainbatekin ez dirudi itxuragabe pentsatzeak orain aztertzen ari garen beste ahalerak eta bere kideek subjuntiboko *nadin*, *nandin* —hau baita antzineko forma, eta ez *nendin*—, izan zituztela apika abiapuntu, eta gauzatu bide zirela subjuntiboarena den *-n* kenduz eta ahaleraren *-te* berretuz.

Orainaldiko *nadin*-ek euskara zaharrean lehenik **nadite* eta gero *naite* eman bide zuen bezala, halaber zuzen onez pentsa daiteke lehenaldiko *nandin*-ek lehenik eman zuela **nandite* eta gero metatesi baten bidez **nadinte*, azkenik bokal arteko *-d-* galdurik Oihenarten *nainte* bilakatzeke, baieta Etxepareren *nainde* eta Leizarragaren *neinde*. Horra ene ustez hiru bariante zahar horien etorkia.

Adizki honen hirugarren pertsona baizik ez da Leizarragak berak zortzi lerro beherago darabilen “hel ahal *leite(la)*”, subjuntiboko *zedin*, hobeto esan, ebentual *ledi(n)* —Etxeparek *ladi(n)* dioen— batetik sortua. Horrexegatik ere azken honen *nor-nori* hark *lequidan* dio eta Etxeparek *laquidan*.

Hemen aipatzen ditugun lehen-geroak ez dira noski denborazkoak eta ez dugu esan nahi subjuntiboa ahalera baino lehenago, ez geroago sortu zenik; bien arteko erlazioa agirian ipini baizik ez dugu nahi.

2. Subjuntibo-ahaleren arteko erlazioa gutun bereko beste perpaus batek ere erakusten digu, ene ustez. Zer gertatzen zaio ahalerazko adizki bati —esate baterako *dezakegu*-ri— *-n* atzizkia hartzea dagokion mendeko perpaus batean txertatu behar denean? Zer bilakatzen da? *dezakegun*? Bai eta ez, nolakoa den mendeko perpaus hori. Baldin txertatu behar duena zehar galderazkoa bada, bai, segurki:

- Eraman al dezakezue?
- Zer galdegin du?
- Eraman al *dezakegun* galdegin du.

Halaber baldin erlatibozkoa bada:

“Gaur egin *dezakegun* lana ez dezagun biharko utz”.

Baina baldin, esate baterako, kontsekutiboa bada zer? Edo erabat adizkiak, hizkuntza erromaniko batzuetan bezala, ahalera utzi eta subjuntibora pasa behar izaten duen perpausetakoa bada, zer? Esate baterako: “No podemos dárselo” → “No somos tan pobres que no *podamos* dárselo”. Orduan zer? Orduan ere irauin al dezake ahaleran *-n* hartuz? Bai al da euskaraz, nolazpait esan, aldi berean ahalera eta subjuntibo den adizkirik? Helburuzkoetan, esate baterako, esan al daiteke: “Dirua eman dit, auto berria eros *dezakedan*?”. (Ez naiz ari zenbait gramatikarik bere gramatiketarako asmatu adizkiez, ezpada adizki berriak asmatzen ibili gabe idatzi izan duten idazleenez). Eta baldin uste badugu baietz, esan daitekeela, zergatik Leizarragaren honako hau perpaus kontsekutibo batean?:

“Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak berze nazione guzien artean ezgarela hain basa, non gure lengoagez ezin ezagut eta lauda *dezagun* gure Iainko Iauna: ...”

Bistan da hor hau bezalako perpaus bat, "zuen lengoagez ezin ezagut eta lauda *dezakezue* zuen lainko launa", dela baieztapen horrekin bat ez datorren batek ukatzen duena, erantzunez: "Adizu!, ez gara hartarainoko basa, non...", eta kontsekutibo honek bihurtarazten duela ahalera subjuntibo.

Bai, baina kontsekutibo izate hutsak ez, agian. Beste baldintza bat ere bete behar da, dirudienez, subjuntibora igaro behar izateko: kontsekutibo horren aurreko perpausa ezezkoa (edo galderazkoa, etab.) izatea. ("...ez garella hain basa"); orduan hartu behar baitu mendeko perpaus horren adizkiak *-n* atzikia, gazteleraz ere subjuntibora orduan pasa behar duen bezala, goiko perpaus hartan ikusi dugunez: "No somos tan pobres, que no *podamos...*"; ez ordea baiezko beste honetan: "Somos tan pobres que no *podemos...*". Eta euskaraz ere, dirudienez, gauza bera gertatzen da, zeren baldin aurreko perpausa baiezkoa bada, orduan mendeko perpaus horren adizkiak *bait-* aurrizkia hartu behar baitu, jakina den bezala. Gutun honetanxe ditugu esandakoaren hiru esenplu:

"...ene manera halako bazen-ere, non *ezpaitzuen* irudirik-ere...".

"...hark du engendratu... halako reberenzia bat, non... ezin asko mirets *baitezakete...*".

"...halakara mansotu eta ematu izan da, non egungo egunean... predikaten *baita, ...*".

Damurik ez dut aurkitu adizkia ahaleran duen adibiderik, baina ez da dudarik lasai esan dezakegula:

"Hain goiz da, non oraintxe joan eta Zarautzen bazkal baitezakegu".

Horrelako esenpluak, hots, aurreko perpausa baiezkoa delako perpaus kontsekutiboaren adizkiak *bait-* hartzen duenak, nahi adina aurki daitezke Leizarragaren eta orduko eta geroagoko beste edozein idazlerengan. Nekezago aurkitzen dira bestelakoak, aurreko perpausa ezezkoa delako perpaus kontsekutiboaren adizkiak *-n* hartzen duenak. Gutunean ez dago halakorik. Hona bat halere Leizarragarena berarena, eta bikoitza gainera, "Adbertimendua" izena duen ondoko idaztikoa:

"ezin hel dakidigu hain munduko egitate gaitzik ez maledikziona handirik, non gure probetxutan benedikatua eta sanktifikatua *ezten*, ez hain gaitz handirik, non gure emendiotan eta gure hobeagoatik *ezten*" (*Adbertimendua*, 536. lerroa).

Eta "Adbertimendua"-ren ondoren ezarri zuen "Somarioa" delakotik harturiko bi hauek:

"Eta ezta nehor hain ausartik izateko, non hari *derron*, zergatik egiten duena hunela edo hala egiten duen" (13. lerroa).

“...ezpaitu bere burua hain bekhatore ezagutu nahi, non Redemptore prometatuaeren behar *den*” (45. lerroa).

Hauek horrela direlarik, mintza ote gaitzeko bi *-n* atzizki desberdinez: alegia, zehar galderazko eta erlatibozko perpausetan ahalerari erants dakiokenaz batetik eta bestetik helburuzkoetan eta kontsekutiboetan halako atzizkirik onartzen ez, eta adizkia subjuntibora igortzen duenaz? Ala zuzenago ote da esatea, ez bi *-n* mota, baizik bi mendeko perpaus mota edo maila ditugula euskaraz, bata bestea baino mendetasun sakonagokoa dena? Airean uzten dut galdera, erantzuna dakienak, baldin inor bada, eman dezan guzision onerako.

3. Hirugarren puntuak ez du zer ikusirik adizki honen edo haren formarekin; deklinabideari dagokio gehiago. Zer gertatzen da izen sintagma berberak aldi berean bi kasu marka edo bi atziziki hartu behar dituenen? Ipin dezagun exenplu bat.

Demagun perpaus bat osatu nahi dudala *pentsatu* aditzarekin eta, aditz horren errejimena inesiboa denez gero, honako hau diodala:

“Bart Somaliako *gerratean eta gosetean* pentsatuz ez dut lorik egin”.

Gero ordea bi inesibo horiek elkarri *eta* juntagailuz lotu ordez nahi izan dudala sartu *ez ezik*. Bistan da ez litzuzkeela bi inesiboak aldatuko: *gerratean ez ezik gosetean* geldituko litzateke. Baina hori ere atsegin ez, eta baldin sintagmari *-z* instrumentala eransten dion *gain* ezarri nahiko banu *eta*-ren ordez, nola esan beharko nuke? Lehendik *-n* kasu marka duen sintagmari nola eratxeki *-z*? Badugu euskaraz *-nz* kontsonante mul-zoa hitzaren bukaeran duen formarik, hala nola:

“Ez dakit etorriko denz”.

Gauza bera egin behar ote zaio ez hor bezala adizkiari, baizik gure izen sintagmari eta esan:

“Bart Somaliako *gerrateanz gain* gosetean pentsatuz, ez dut lorik egin”?

Leizarragak emango digu erantzuna. Honek Erreginari hau idatzi zion: Jainkoan lehendabizi, baina gero haren (Erreginaren) autoritate handian fidatuz, hartu zuela mila zalantzaren ondoan itzulpenari ekiteko erabakia. Ez zion ordea esan “Jainkoan eta autoritate handian” emendiozko *eta*-z bi izenak loturik, baizik errejimena *-z* atzizkia duen “landan” posposizioz baliaturik. Nola ordea? Ikus dezagun:

“Alabaina... azkenean, *Jainkoaz landan*, zure anhitz berthutereki-lako autoritate handian sporzu harturik, gogo egin nezan, neure ahal guziaren egitera eta...”.

Ikusten denez, inesiboaren marka galdu da eta instrumentalarena bakarrik gelditu, gazteleraz gertatzen ez dena, non biak bizi baitaitezke ondoan: “*además de en Dios*”.

4. Gutun berean bada erlatibozko perpaus bihurri bat, guri egungo egunean aditzeak ere —esateak mila bider gehiago— nekeak ematen dizkiguna. Erlatibozkoa dela norbaitek dudatan jarriko balu, hortxe dugu frantsesezko testua dudak haizatzeko. Ikus dezagun lehenik euskarazkoa:

“ezen halaz eman izan zait... orhoitzeak-ere buruko biloa latz eraziten drautan kaptibitatezko suiekzionetik ilkhiteko okasione eta moien”.

Eta frantsesez: “*la souvenance de laquelle me fait encore dresser les cheveux en la tête*”. Zertan datza kontua? Frantsesak erakusten digunez perpaus nagusiaren eta erlatibozkoaren elementuen arteko erlazioa genitiboa denean, bestela esan, erlatiboak genitiboan joan beharko lukeenean, oso gaizki moldatzen garela gaurko euskaldunok. Leizarragaren irtenbidea ezin errazagoa da, bestalde: genitiboa erabat isildu. Alegia, batetik daukagu:

“kaptibitatezko suiekzionetik ilki naiz”.

Eta bestetik:

“haren (=suiekzionearen) oroitzeak buruko biloa latz eraziten draut”.

Nola lotu biok elkarri? Bietan errepikatzen den “suiekzionea”, edo nahiago bada, hizkuntz erromanikoen kategorietan genitiboan joan behar lukeen erlatiboa, arras isilduz eta beste gabe gainerako elementuak elkar-tuz, adizkiari erlatibozko *-n* erantsiz, noski. Alegia,

“oroitzeak buruko biloa latz eraziten drautan kaptibitatezko suiekzionetik ilki naiz”.

Jokamolde horrek benedikatzen ote ditu eta on egiten honako esaldi hauek? Euskaltzaindiaren baitako hizkuntzalariei eskaintzen dizkiet, har nahiz arbuia ditzaten; neure ustez Leizarragarenaren arabera asmatu ditut, baina ez naiz ziur ongi dauden. Hona sorta bat:

“Erosteak kaltea baizik egin ez dion etxeari su eman dio”.

“Ahazteak nahigabe handiak eman dizkidan amaren kontseiluak bete nahi ditut gaurogero”.

“Etxetik jaurtitzeak pena handia eman zion semea etorri zaio berriz etxera”.

“Ameriketara joaiteak irabazi handiak ekarri dizkion laguna mila bider madarikatu du”.

Nola uka gaurko euskaldunen belarrietarako aski bitxiak direla! Horrek ez du halere nahitaez esan nahi betikoenetarako izan direla, are hegoaldekoenetarako beti izan direla. Hona esenplu bat duela ehun eta berrogeita hamar urte, gutxi gorabehera, Gipuzkoako herrixka Beizamako Erretore Felipe Agustin Otaeguik idatzia:

“An arguituco dira pensamentu loi ta ichusi, oroitzeac berac ecin eraman alaco icara ta lotsa ematen duan oriec”.

Leizarragaren pasarteaz ezagutzen ere zuela esan behar, bietan nominalizazio bera, “oroitzea”, baita genitibo isilduaren eragilea.

Beldur naiz Leizarragaren adibideak ez dituen nekezago benedikatzeko eta on egiten beste hauek, lehengoak bezala ene ingudean landuak, baina lehengoak ez bezala genitibo litzatekeenaren eragile izen arrunta dutenak:

“Aita ene laguna den mutilak jo nau”.

“Aitak dirua eskatu didan mutilari eman diot zaplatekoa”.

“Anaia zure adiskidea den neskarekin ateratzen naiz”.

“Aitarekin hik atzo afaldu huen neska ikusi diat”.

“Teilatuak loa galarazten didan etxea erosteko adina diru badut”.

“Amak ogia erosarazi didan dendako mutilagana joateko bidea erakutsiko dizut”.

5. Azkenik, zuetako inor ez gogaitzearren, puntu txiki bat. Duela hiru hilabete Maulen Oihenarti eginiko omenaldian Orpustan jaunak eta biok kalapita txiki bat izan genuen Oihenarten bertso batez. Hona haren bertsoa:

”Iaincotan bat huts iauretsac”.

Orpustanek “Iaincotan” hori inesibo pluralizat hartzen zuen; nik aldiz mugagabetzat. Lehena izatekotan formak ez zuen azalpen gehiagoren beharrik, nahiz bitxi gerta zitekeen Oihenartek esatea “Jainkoetatik” (zenbat zirela uste zuen?) bat bakarra adoratu behar zela. Bigarrena izenez gero, aldiz, mugagabe horrek esplikazio bat behar zuen ontzat hartzeko, eta eman nuen, edota ematen saiatu nintzen, esanez enetzat “Iaincotan” hori “Jainko gisa, Jainkotzat” edo antzeko zerbait zela.

Geroztik suertatu zait Euskal Filologiako ikasleei Zizeronen “De officiis” azaldu beharra eta, Parisko “Les Belles Lettres” argitaletxearen edizioan Maurice Testard jaunak eihotako hitzaurre ederra irakurtzen ari nintzelarik, hona ene begiek, zuetako askorenak baino gutxiago frantzesan trebatuek, aurkitu zuten esaldia: “il y faisait parler EN philosophes, des gens qui ne l'étaient pas” (23. or.). (Gero ikasi dut hiztegian “Parler

en soldat”, “Agir en homme” eta antzekoak gaur ere arruntak direla). Bienbitartean esan nion neure buruari: “Baldin frantsesez “il lui parle en philosophe” esan ahal badadi, agian “il lui vénère en Dieu” ere esan ahal izango duk”.

Badakit ez direla biak arras berdinak, baina bai antzekoak. Leizarraga-ren hau ere ez da arras berdina —eta okerrena da frantsesezko testuan oso bestela esana dagoela eta ez duela deus ere argitzen—, baina euskarazkoak argi pixka bat ematen ahalko digu beharbada. Hona nola dioen frantsesez: “Pour le moins ie puis mettre en avant vostre pays de Bearn”. Ez digu ezertan laguntzen. Ikus ordea euskarazkoa:

“Hunetacotzat *exemplutan* frangoqui allega ahal deçaquet çure Bearnoko herria”.

Ez dira gauza bera, berriro diot, “Iaincotan iauretsi” eta “exemplutan allegatu”, baina egungo egunean inesiboak duen baino erabilera zabalagoa erakusten digute eta nik bederen posibletzat jotzen dut Oihenartek esatea: “Jainkotan adoratu dute”, beste “Neskametan hartu dute” eta abar bezala, ez baitzaigu ahaztu behar Oihenartek berak esaten duela “zuretan hartu” honako ahapaldi honetan:

Eia bada,
Ordüa da
Suretan has siteen
Ene harzen,
Et' oharzen
seren sordun saudeen (II, 67-72).

Aski da gaurko, batez ere baldin zuzena baino okerra, bihia baino ahotza, gehiago itzuri bazait.